

Goi Aro Berriko Bizkaiko Jaurerriko Gobernuari buruzko hurbilketa

Mikel Zabala Montoya
Historian doktorea (Deustuko Unibertsitatea)

Artikulu honetan aztergai dira XVI. mendeko bigarren erdialdetik XVII. mendeko lehen erdialdera Bizkaiko Jaurerriko Gobernua osatu zuten familia nagusiak. Lehenik, erakunde-mailan talde zuzentzailea zehazten ahalegindu naiz. Egia esan, kargudun guztiak baino Ahaldun Nagusiak besterik ez dira miatu. Jarraian, talde horren sendirik nabarmenenak landu dira: tokian tokiko kokapena, gaitasun sozio-ekonomikoa, aliantzak eta mendetasunezko loturak, ondorengotza-estrategia, etab. Lagun batzuen arteko parekotasunak eta diferentziak balizko fakzioen berri emango digute. Análisi horren bitartez, Jaurerriko erakundeetan bi bloke nagusien arteko elkarren kontrako enfrontamenduaren izaera edota bando zaharren jarraitutasuna argitzen saiatuko naiz.

Gako-giltzak: Erakundeen historia. Bizkaia. Ordezkaritza-erakundeak. XVI-XVII. mendeak.

This piece of work analyses the main families who took part in the Biscayan Government between the second half of the 16th. century and the first half of the 17th. century. Firstly, those families who composed the Biscayan ruling classes have been listed. This list doesn't include all the officials, but only the General Deputies. Later, those families most frequently elected at the General Assemblies have been studied: placement, socioeconomic bases, nets of alliances and dependence, familiar strategies, etc. Similarities and differences between all of them may enlighten some news about hypothetical factions. Finally, this analysis will try to give out the reasons for the fight between the two main groups in the Biscayan institutions or the presence or the old bands.

Key Words: History of institutions. Biscay. Representative institutions. 16th. and 17th. Centuries.

1. Sarrera

Goi Aro Berriko Bizkaiko Jaurerriko talde zuzentzailea identifikatzea da idazlan honen lehenbiziko helburua. Abiapuntu hau oinarritzat hartuz, beste aurrera-pausoak eman ahal izango dira. Jaurerriko Gobernuko kargu haietan izandako pilaketa aztertzea partaidetza edota oligarkizazio kontzeptuetan murgildu ahal izateko baliabidea izango da¹. Gainera, lagungarria izango delakoan nago adierazkorragotzat joko ditudan kargudun batzueganako hurbilketa hasteko ere. Aukeratutako multzoari buruzko kokapena, oinarri materialak, ondorengotza-estrategia, loturak eta aliantzak, etab. aztergai izango dira, ezagutza zehatzagoa eskainiko digutelakoan.

Aurrekoa ez ezik —edota, agian, haren bitartez—, Jaurerriko erakundeetako enfrentamendu nagusian ere sakondu nahi dut. Lehenik eta behin, jakin beharra dago ea Hiribilduen eta Lurralde Irekiaren arteko aurrez aurreko gatazkak parekotasunik ote duen balizko hiri- eta nekazaritza-eremuen elkarren artekoarekin. Ildo beretik jarraituz, aipatutako gatazka erakunde-mailako aurkakotasunen ondoriozkoa zen ala horrek beste era bateko liskarra islatzen zuen orain arte erantzunik gabeko galdera da. Era berean, tirabira bestelakoa izatekotan, zertan zetzan argitzea ere erantzun beharreko eginkizuna da. Jakina: aurreko arrapostuetara hurbiltzen hasteko talde zuzentzailearen ahalmenaren oinarri ekonomikoak edota mendetasunezko loturak aztertu behar dira, nik uste.

2. Talde zuzentzailearen identifikazioa

1558. urtetik 1660.era bitarteko Gobernuko karguen analisiak honako datu hauek eskaintzen ditu:

1. taula. Bizkaiko Jaurerriko Gobernuko kargudunen izendapenak (1558/1660).

Izendapenak	KARGUAK						GUZTIRA Kargudunak
	AN	ER	SN	ID	AK	DZ	
1	63	387	72	46	14	58	516
2	13	56	11	17	5	6	126
3	4	12	2	5	3	1	46
4	-	6	2	2	3	-	15
5	1	1	-	1	1	-	5
6	1	-	-	-	1	-	5
GUZTIRA	82	462	87	71	27	65	713

Iturria: D. Areitio (1943).

Oharra: Judikatura guztietako izendapenen batuketa eta kargudunen kopuruak ez datoz guztiz bat, gizabanako berberak sarritan kargu desberdinak bete zituelako.

Aurreko taulan Gobernuko kargudun guztiak sartu dira, baita —ezagututako kasuetan— ordezko edota behin-behinekoak ere. Kargudun bakoitzeko batez besteko izendapen-kopurua 1,4koa izan zen, nire kalkuluen arabera. Horrek karguen mugikortasun handiaren berri ematen digu, nik uste². Izendapen bakoitzak

1. Hona hemen eztabaida honi buruzko sintesi bat: R. López Atxurra (1991:117-170).

2. Karguz kargu aztertuz gero, Aholkulari, Idazkari edota Diruzainen kasuetan pilaketa-maila altua-
goa eraginkortasunari lepora diezaiokegu, neurri batez.

bi urte inguru irauten zuela ez dugu ahaztu behar. Hala ere, hamar pertsonak baino ez zuten bost agintaldi edo bostetik gora bete, eta batek ere ez zuen sei judikatura baino gehiago lortu. Haien artean Joan Gomez Butroekoa eta Martin Abendaño —abizenak nabarmentzekoak dira— bi kargudunik ikusgarrienak omen ditugu, behin eta berriz Ahaldun Nagusi izendatu zituztelako, larritasun handiko uneetan —XVI. mendearen amaieran, hain zuzen ere— gainera.

Aldi berean bi kargu tartekatzea³ baztertzeko arazoa da, aztertutako azkeneko urteetan baino egiaztatu ez dudana. 1654.ean Prudentzio Larraurik Bigarren Sindikoa izan zen bitartean Errejidoretza ere bete zuen. 1660.ean Jose Aia Lizentziatua Bigarren Sindiko eta Aholkularia izan zen.

Esanak esan, gizabanakoen aurreko datuek estaltzen dituzte Jaurerriko karguen kontrola areagotzen zuten sendien sareak. Hona hemen bertan agertutako abizenik ohikoenak:

2. taula. Bizkaiko Jaurerriko Gobernuan partaidetzarik handiena izandako abizenak (1558/1660).

<i>Gobernuko kargu guztiak</i>		<i>Ahaldun Nagusiak</i>	
<i>Abizenak</i>	<i>GUZTIRA</i>	<i>Abizenak</i>	<i>GUZTIRA</i>
Abendaño	13	Abendaño	9
Aldape	9	Adarlarzakoa	3
Arteaga	9	Aldape	6
Asua	10	Arteaga	7
Butroe-Muxika	19	Asua	5
Duo	7	Barroeta	3
Ibinariaga	14	Basurto	4
Munitiz	9	Butroe-Muxika	12
Oka	8	Gareka	3
Olaeta	10	Mezeta	4
Tellaetxe	10	Munibe	4
Urasandi	7	Ugarte	4
GUZTIRA	125	GUZTIRA	64

Iturria: BFAA, AA, Bizkaiko Batzar Nagusi eta Erregimentuetako Akta Liburuak.

Aurreko laukiaren arabera, karguz karguko pilaketa-maila desberdina zela ondo-riozta daiteke. Gobernuko hamabi abizenik arruntenek kargu guztien % 12,2 baino jaso ez bazuten ere, oso bestelako egoera izan zen agintari nagusia izandako Ahaldun Nagusiaren kasuan. Bertan, hamabi abizenik ohikoenek —aurrekoekin oso aldaketa gutxi zeudela— guztien % 57,1 bereganatu zuten. Azkeneko familia horiek, beraz, Jaurerriko benetako talde zuzentzailea osatzen zutela uste dut. Horrexegatik xehetasun handiagoz izango dira aztergai. Horrez gain, kide guztien artean kargu batetik bestera tarte handirik ez zela izan⁴ erreparatuz gero, gizabanakoen gaintik sendia nagusitu zela esan daiteke, nire iritziz.

Aurreko familien aliantzak eta gaitasun ekonomikoa ezagutzeko berebiziko tresnak ziren ezkontza-agiriak aztertzen hasi aurretik, beste elementu bat kontuan hartu nahi izan dut: tokian tokiko kargudunen kokapena.

3. 1642.eko urriaren 2ko Batzar Nagusietan Iñigez Akuriok, Gernikako Alkateak, Errejidore hautatzean, Errejidoretzari muzin egin zion, 1630.eko Konkordiaren aurkako prozedura zena.

4. Joan Tellaetxe Lizentziatuaren edota San Joan Munitizen salbuespenak salbuespen.

**3. taula. Bizkaiko Jaurerriko Gobernu eta Ahaldun Nagusiak
Merindadeen arabera (1558/1660)⁵.**

Merinaldeak	Batzar Nagusietako ahaldunak		Hautesleak	AN
	1558/1630	1630/60	1558/1660	1558/1660
Uribe	45	40,4	42,2	45,5
Busturia	36,6	32,9	35,1	31,2
Arratia	9,8	8,5	12,3	3,5
Markina	2,8	3,1	1,4	9,8
Zornotza	4,2	3,1	5	1,7
Bedia	1,4	1	1	-
Bestelakoak	-	10,6	2,8	8
GUZTIRA	100	100	100	100

Iturria: Supra, 1. taula.

Oharrak: Datu guztiak ehunekotan agertzen dira. *Bestelakoak* deitutako kategoria gainerako Merindadeetatik kanpo gelditutako Hiribilduen eta Durangoko Merindadearen izenean Batzar Nagusietako ahaldun eta hautesleei dagokie. Mota bereko 1630 eta 1660 bitarteko datuak nola edo halako distortsiorik baduela ohartarazi nahi dut, 1642. urtetik aurrera Jaurerrian barneratutako Enkarterriko Errepublikak Batuetakoak ez ditudalako zenbatu. Ahaldun Nagusiei dagokionez, azkenik, aipatutako jatorrietakoak eta kasu zalantzarriak batu ditut atal horretan.

Merindade bakoitzak Gernikan zeukan ordezkapenari dagokionez, ematen du eskuarki parekotasuna egon zela Merindadeko udalerriren bat Gobernu berria izendatzeko hautesleen kopuruaren eta jatorri bereko Ahaldun Nagusien artean. Uribeko Merindadeko datuak zertxobait puztuta egon litezke, alde batetik, bertan Bilboko ingurunekeo datuak sartzeagatik, eta bestetik, urte haietan Ahaldun Nagusia izatera heldutako lerro desberdinetako Butroe-Muxika edota Bilbao familiako Abendaño abizenak ere barneratzearen. Hala ere, bertako ordezkapenak ez du oso alde handirik adierazten.

Markinako eta Arratiako Merindadeak, berriz, diferentzia handi xamarren leku-koak dira. Lehenbizikoak bertako bi Elizateren kasuan espero zitezkeen kargudunak baino gehiago izan zituelako; bigarrenak, alderantziz, oso ordezkari gutxi agertzearen. Gainera, azkeneko eskasia hori deigarria da oso, Arratiako ahaldunak sarritan atera zirelako hautesle —ordezkapenaren parekoa baino gehiagotan—, Markinakoaren kasua guztiz kontrakoa izan zela⁶.

Markinari dagokionez, maiztasuna garai hartan Jaurerriko agintaldietan oso protagonismo handia jokaturako hiru familiari —jatorri honetako bakarrak zirenei, bestalde— leporatu behar zaie: Barroeta, Munibe eta Ugarteri, hain zuzen ere. Horrez gain, Bizkaiko Ekialdeko eskualdeak, oro har, partaidetza handia izan zuen, Markinatik hurbil kokaturako Adan Iartzakoa —Ispasterko Zubietakoa zena— edota Munitibarren lekututako Ganboa familiei esker.

5. Merindade bakoitzeko biztanleria ez dut oinarritzat hartu garai hartako populazioari buruzko zenbaketa fidagarriak eskaintzeko dauden zailtasunengatik eta, demografian oinarritutako ordezkapen sistema ez izanik, garrantzi handirik ez edukitzearen.

6. Horrek pentsatzera narama hautesleek maiz Merindade bereko kargudunik ez zutela proposatu.

Arratiako Merindadearen kasurako horren erantzun argirik ez dut. Dena dela, ohartarazi beharra dago aspaldidanik bertako leinurik nagusiena zen Igorreko Abendaño Urkizukoak eskualdearen mugapenak gainditu zituela. Aipatutakoak ez ziren Jaurerriko agintariak izan, baina bertan azaldutako senideak —Bilbao edota Garai Ierroetakoak— Merindadetik kanpo errotu ziren. Ahaide nagusi oinaztarrei buruz beste horrenbeste esan dezakegu, baina Uribeko Merindadeko beste hainbat senide izan zuten Gobernuan.

3. Ezkontza-agiriak eta oinarri sozio-ekonomikoak

Jarraian Jaurerriko kargudun batzuen ezkontza-agiriak aztertuko ditut kargudun batzuen gaitasun ekonomikoa, interesak edota estrategiak ezagutu ahal izateko. Ezkontzetako ondorioak zenbatekoak ziren erreparatuz gero guztiz ulergarria denez, halako loturak oso kontu handiz prestatzen zituzten. Oro har, bi ezkontideen ekarpenak nahiko orekatuak izaten ziren⁷, nahiz eta noizbait berdintasunak esanahi ekonomikorik ez eduki. Izan ere, ezkontza-agirietan era askotako baldintzapenak adosten ziren: zorrak barkatzea⁸, ezkonsariaren inbertsioa zehaztea⁹, etab. Eta hala jokatzeko guztiz logikoa zen, besterentzea sarritan bertan izanik, gurasoek handik aurrera familiako ondasunen gozamina baino ez zutelako izango¹⁰. Dote asko berehalako ordainketa bakarrean eman beharrean hainbat urtez luzatutako epeka eman zirenean, hitza ez betetzeak arazo ugari sorrarazi zuen.

Analisi honen esanetara, familia batzuk nabarmendu ziren. Berauek gizaldiz gizaldi kargu desberdinak bete zituzten eta inoiz —edota sarritan— agintaritarik gorena zen Ahaldun Nagusiak izatera ere heldu ziren. Oro har, talde hauek errentatzailetzat har baditzakegu ere, Bizkaitik kanpoko eremuetara gutxitan zabaldu ziren, eta noizbait eskualdea ere ez zuten gainditu. Dena dela, nork bere esparruan ahalmen handia omen zuen arlo ekonomikoan, erakundeetan, ohorezko mailan, etab. Aipatutakoek Jaurerriko talde zuzentzailea —esanahi zabalaz hartuta— osatzen zutela baieztatu dezakegu. Bestela esanda, patronatu eta prebostetza-eskubideen jasotzaileak; errota eta burdinolen jabeak; etxalde, lursail eta basoen ugazabak; administrazioan, armadan eta elizan goi-karguen hornitzaileak; edota kapera eta fundazioen sortzaileak ziren.

Ahaldun Nagusiak errentatzaileak besterik ez ziren. 1630. urtea baino lehen kargua betetzeko eskakizunak Gobernuko gainerako guztien berberak izanik¹¹ (eta, edozelan ere, aztertutako garai osoan zehar baldintzapen ekonomikorik, ustez, ez ageri arren)¹², Ahaldun Nagusiak gainerako kargudunen gizarte-mailatik ezberdintzen ziren. Adibide batzuk esandakoaren adierazpideak dira.

7. Beste hainbat testuingurutan ere antzeko egoera izan omen zen: J. Fayard (1982:283).

8. Fernando Lamikiz Bulukua hautesleak, 1620.ean Joan Ortiz Olaeta Mendieta Ahaldun Nagusia izateko proposatu zuenak, horrengandik 400 dukateko zorraren barkamena jaso zuen geroago. BFAA, NA, GP, 341. K. (1635.VIII.22).

9. Joan Muxika Landaguren eta Maria Ramirez Lumoren arteko ezkontza-agirian balizko seme-alabentzako urteroko 300 dukateko errenta gordetzea erabaki zuten, gainerako guztia zentsutan inbertitu behar izango zutela. BFAA, NA, GP, 275. K. (1632.VII.23).

10. Ik. I. Monasterio (1994:111-112) edo M. Lafourcade (1989:140-144).

11. G. Monreal Cía (1974:427-442).

12. 1748.eko uztailaren 24ko Batzar Nagusietan gutxieneko 20.000 dukateko kapitalaren eskakizuna —ondasun higiezinetan gainera— arautu zen. Hala ere, 1554.eko otsailaren 1eko Errege Eginkizunak hautagaiak «abonados» izenda zitezen agintzen zuen.

1639.ean Diego Asua Getxo Martiartu bigarren aldiz ezkondu zen, halako hartan Ana Maria Sarabia Larrearekin. Bertara Diegok Asua, Getxo, Martiartu eta Ingelesen lokarriak, Begoñako Atxurin kokatutako bi etxe eta 2.181 dukat dirutan eraman zituen. Ezkontideak, berriz, 6.000 dukat aurkeztu zituen (haietako 1.894 dirutan eta beste 4.106ak zentsutan)¹³.

1632.ean Joan Muxikak hainbat ondasun aurkeztu zuen Maria Lumo esposatzean. Lehenik, honako oinetxe hauek: Landaguren, Areaka, Urrunegin kokatutako etxetxoaz osatutako Utxipia, Oka Kantoi —honek, berriz, etxea eta errota erdia zuena— Okaranaga eta Arnotegi; bakoitzak bere lursailak zituela. Horrez gain, 620 egur-zama baino gehiago ekoizten zuten hainbat mendi; Muxikako Erreka Ilunako burdinola osoa, Olaibarrako erdia eta Okako seirena; 2.879 dukat zentsutan etaazienda (ehun behi, hamar idi eta bestelako abereak) eraman zituen. Ezkontideak jasotako ezkonsaria hauxe izan zen: Lumoko dorretxea eta bertako lursailak; Gernikako etxe berria Goikokalean; Muxikako Burgoa eta Ibarruriko Zubie deitutako etxeak (beraien lurak ere barne); Ibarruriko Barrenolea Oka burdinola eta errotaren laurdena; Muxikako Boluaga errotaren erdia; Solaegi eta Mango etxeetako errentak (hau da, 5,25 anega gari eta 5 oilo urtero); eta 20.000 dukateko Sevillako Almojarifazgo Nagusiaren gaineko *juro* delako diru-ezarpena¹⁴.

Jaurerriko kargudunei zegokienez, eta aurrekoen azpian, gaitasun ekonomiko apalagoko talde zabalagoa zegoen. Talde hau, nola edo hala, Bizkaiko erakundeetako partaidetza handiaren erakusgarria dugu. Oinarrizko kargudun hauen batez besteko ondasunak mila eta hamar mila dukat bitartekoak omen ziren¹⁵.

Joan Hernani Areiltzakoa Zeberioako olen jabeak Maria Anuntzibai esposatu zuen 1608.ean. Berak Bakiolako oinetxea (lursailak, burdinola eta errota erdia barneratzen zituena), alde batetik, eta Pagasazabal eta Gortabarriko kortabasoen herena, bestetik, izkiriatu zituen agirian; emaztegaiak, berriz, 1.200 dukat dirutan eta ostilamendutan eraman zituen¹⁶.

Joan Martinez Altzibarrekoa zeanuritarra Joana Abendañorekin ezkondu zen 1617.ean. Altzibarrek hauxe ekarri zuen: abizen bereko oinetxea —burdinola eta errota ere barne— eta lursailak; Iburguen auzoko bi etxalde; Artsuagako Molotegi baserria eta lurak; Igartua etxaldea; Valladoliden kokatutako hainbat ondasun higiezin; Arbinako bi kortabaso; 50 betabere; 1.000 dukat dirutan eta beste 200 ostilamendutan. Abendañok, berriz, 1.000 dukateko balioa zuen ondare multzoa aurkeztu zuen¹⁷. Itxurazko desoreka kuantitatiboa Altzibar leinua Martin Abendaño Garairen alaba batekin estekatzegatik konpentsa ei zitekeen, bi familien arteko loturak aurrekoak izanda ere.

13. BFAA, BA, Villarías, 47 L, 1 E, 17. zk. (1639.I.18).

14. BFAA, NA, GP, 275. K (1632.VII.23).

15. Salbuespenak salbuespen, hamar mila dukatetik gorako ekarpenak oso Errejidore gutxik izan zituzten. Frantzisko Lopez Etxabarrikoak, esate baterako, 10.988 dukat eraman zituen Antonia Bilbao Tellaetxerekin ezkontzean. BAHP, NA, Isk. Gonzalo Lopategi (Bilbo), 5014 PS (1635.IV.21).

16. BFAA, AJ, Korr, 197 PS, 19. zk. (1608.I.9).

17. BFAA, NA, UP, 3. K (1617.VIII.2).

Sindikoa eta Idazkaria izandako Joan Otxoa Galartzakoa Amorebietakoak Zubiaur eta Plazaren arteko hiru pare etxebizitza eta lursailak, alde batetik, eta Astepeko burdinolaren herena, bestetik, eraman zituen 1617.ean Madalena Muntzaraz Ibarrarekin esposatzean, ezkontideak diru, ostilamendu eta bitxikerietan 800 dukat agertu zituela¹⁸.

Larrabetzuko Rodrigo Lezama Ana Aldaperekin ezkondu zen 1636. urtean. Bere ondasunek 2.000 dukat balio izan zuten, horietako 1.400 dirutan. Emaztegaiak, berriz, multzo hau eraman zuen: Isuzkitzako oinetxea eta lursailak (guztira 600 dukatekoak zirela), Lezamako burdinola zaharraren laurdena, bertako errotaren zortzirena, azienda, Maruriko hamarrenak, Castilnovo eta Villalbako Dukerriaren gaineko 1.680 dukateko *juro* deitutako diru-ezarpena eta 100 dukateko zentsua¹⁹. Lezamak Joan Aldaperen alabarekin ezkondu izanaren etekina berehala lortu zuen, handik zazpi hilabetera oinaztarrek Jaurerriko Sindiko izendatu zutelako.

Orain arte esandakoaren arabera, Ahaldun Nagusien eta gainerako kargudun guztien arteko tartea nabaria zen oso. Bestalde, aurreko deskribapenetan azaldutako baliabideak nekazaritza-inguruneetakoak ziren.

Ezohikoak izanda ere, 1.000 dukatetik beherako doteak ere izan ziren. 1599. urtean Bartolome Goitia Errejidoreak, Mari Santxez Arbietakoa esposatzean, Begoñako Larrakoetxea etxaldea eta 100 dukat eraman zituen; emazteak, aldiz, Deustuko Gaztainal baserriaren gaineko 200 dukat aurkeztu zituela²⁰. Jaurerriko Errejidoretza, beraz, kargu irekiagoa zen, nekazari-eremuetako giza talde zabalak bete omen zezakeena.

Azkenik, aztertutako notario-atalek giza taldeen ohiko sailkapenen artifizialtasunaren berri ematen dute. Jatorri zaharreko leinuetako kideak ontzigintza bezalako jardueretan aritu ziren²¹, garrantzi handiko merkatariek diru-kopuru handiak zentsutan inbertitu zituzten bitartean²². Hala ere, ohartarazi nahi dut aurreko sailkapenak guztiz balio gabetu gabe, izendapen batzuk malgutasunez erabili behar direla. Edozelan ere, kritika bera baino beste ondorio interesgarriagorik ere aipa daiteke: gizarte-antolaketan foruzaletasunak erakutsitako eragin suspertzailea, merkataritza-jarduerak ez zuelako ohorea zikintzen²³. Horrek garaiko beste alor batzuetako gizarte-antolaketarekin zerikusirik ez zuen, nonbait²⁴.

18. BFAA, NA, ZP, 33. K (1617.V.30).

19. BAHP, NA, Isk. Joan Perez Burgoakoa (Bilbo), 3119. PS (1636.II.28).

20. BAHP, NA, Isk. Joan Legarreta (Bilbo), 5375. PS (1599.XI.4).

21. 1603.eko martxoaren 3an Pedro Billelak Portugaleteko San Pedro galeoia pleitatu zuen Indietako bidaia egin zezan (BFAA, NA, GP, 256. K). Domingo Martinez Iasikoak ere antzeko jardueretan parte hartu zuen, 1630.ean Gerra Kontseiluak Cádizen zegoen Santa Teresa galeoia bahitu zionean, esate baterako (SAO, GIA, 1233. PS). Billela abizenekoak ere Koroarentzako zerbitzuan aritu ziren: 1582. urtean galeoia prestatu zuten Lope Avellanedaren itsas armadarentzat (SAO, GIA, 190. PS).

22. M. Zabala Montoya (2004:363-391).

23. M. Larramendi (1754:157-159).

24. A. Domínguez Ortiz (1973:168), J.A. Maravall (1979) edota J. Pérez (1989:13).

4. Nekazaritza-eremuetako eta Hiribilduetako jauntxoak

Ahaldun Nagusien abizenen sakabanaketa aztertuz gero, ematen du Hiribildu batzuen inguruetan pilatzen zirela. Hiribildu haiek Bilbo, Plentzia, Bermeo, Gernika, Lekeitio eta Markina ziren.

1. mapa: Bizkaiko Batzar Nagusietan garrantzi handia izandako familien kokapena (1558/1660)



Ez dirudi kokapena guztiz ausazkoa zenik. Toki haiek Jaurerriko gune nagusi²⁵ eta aktiboenak ziren, aberastasun handiak bertatik pasatzen ziren eta. Portuak izateaz gain²⁶, bertan bigarren eta hirugarren sektoreetako jarduerak garrantzi handia zuten. Dena dela, bertako erakundeak kontrolatzeko gatazka larrienetakoak ere bertan ziren.


Batzar Nagusietako asistentziaren arabera, abizen haien eragina Hiribilduetako mugarrak baino askoz zabalagoa zela esan daiteke, ia Bizkaia Nuklear osotik zabaltzen zen eta. Izan ere, Gernikan jesarlekua zuten udalerrri guztien erdia baino gehiagoren izenean bertaratu ziren. Bestalde, tokian tokiko banaketa logikoa zen, nik uste, bailarek edota eskualde naturalek hala egituratu zutelako. Geroago zehaztuko denez, Butroe-Muxikak edota Arteagak —maila apalagoan, agian, Abendañorekin batera— mendetasunezko sarerik zabalenak zituzten abizenak ziren. Banaketa horrek, gainera, familia horien baliabide materialekiko parekotasuna

25. 1630. urteko datuetarako, ik. J.M. Cifuentes Pazos eta A. Larrea Beovide (1999: 18-19). Durango, Urduña, Balmaseda, Portugalete eta Elorrio Lurralde Irekiko perimetrotik kanpo gelditzen ziren. Gainera, Elorrio izan ezik (bertako kopuru altua errealitatearekin ez omen zetorren guztiz bat, nekazaritza-ingurune zabala barneratzeagatik) aipatutako beste Hiribildu guztiek eta Bizkaia Nuklearrekoek alde handirik gabeko antzeko ereduak ei zituzten, tokian tokiko Erregimentuetako gatazkek adierazten zuten bezala.


26. Markina salbuespena izan zitekeen, baina guztiz ez, Bizkaitik Gipuzkoara eta kostaldetik barnealderako bidegurutzeetan zegoelako.

adierazten du. Estatistikak hori agertzen du ezagutzen ditudan patronatu eta burdinolen kasuetan, behintzat.

2. mapa: Bizkaiko Foru Aldundiko familia nagusiek izandako patronatuak (1616)



3. mapa: Bizkaiko Foru Aldundiko familia nagusien burdinolak (1629/1639)



5. Abizen nagusiak

Harrigarria badirudi ere, lehenago aurreratutako Jaurerriko Gobernuko bi abizen nagusiak —Butroe-Muxika eta Abendaño— ez ziren lerro nagusien bidez agertu, beste batzuen bitartez baizik. Haien absentzia ez zaio errege-agindu debe-kagarriari leporatu behar, nik uste, indarrean sartu eta gero bortxatu zutelako. Sendi haien jarrera Bizkaiko esparru urria gainditu izanak²⁷ azaltzen du, nire iritziz, Jaurerriatik kanpoko goi-mailako gizabanakoekin lotu zirelako²⁸. Dena dela, aipatutako biak ez ziren kasu bakarrak izan. Jatorri zaharreko beste goi-mailako familia batzuk ere —Arteagak, Billelak edota Zamudiok— Bizkaia gainditzen zuen ezkontza-estrategiari ekin zioten, Jaurerriko erakundeetan ia ez zirela azaldu²⁹.

Edozelan ere, Butroe-Muxikak, alde batetik, eta Abendañoak, bestetik, Bizkaiko talde zuzentzailearen menpeko sarerik zabalenak osatzen jarraitu zuten, lerro nagusien bidez ez izanda ere. Goi-mailako lagun haien arteko elkertasuna eta menderakuntza konplexuak izan ziren oso, baina aztertutako garaian nola edo halako logika eta jarraitutasuna izan zituzten.

5.1. Bilboko ingurunea

Abendaño Bilbao eta Garai lerroek, Bilbon bertan eta Amorebietan lekutu-takoak, hurrenez hurren, eskualde honetan Bizkaiko leinu ganboatar nagusiaren eragina iraunarazi zuten. Lehenbiziko lerroa Prudentzio Abendaño ahaide nagusiaren sasikoa zen Joan Abendaño Maria Bilbao Arizmendirekin ezkontzean sortu zen; ondorengo gizaldian Martin Abendaño Bilbaok Mariana Artunduaga Mahamud esposatu zuela. Ustez, aurreko ezkontza-estrategia merkataritzara bideratu zen, azkenekoaren arriben kasuetan ere beste horrenbeste esan dezakegula. Izan ere, Maria Pedro Nobia Uribarrirekin ezkondu zen eta Isabel, berriz, Iñigo Ortiz Belaskokoarekin (Urduñako Alkatea ez ezik, Inkisizioko Familiarra ere izan zen hiritarrarekin, alegia)³⁰. Hurrengo gizaldiak estrategia berbera mantendu zuen. Flandesen militarra izandako Iñigo Domingo Martinez Isasikoa eta Maria Manrique Legizamonekoaren alaba zen Ines Isasirekin ezkondu zen³¹. Aurrekoaren arreba Madalena Frantzisko Salazarrekin —Garapekoa izanik ere Bilbon bizi zen Frantzisko Martinez Salazarrekoaren eta Luzia Montellanoren semearekin, alegia— esposatu zen. Baina, aldi berean, Abendañoaren beste lerro batek nekazari-ingurueta loturei eutsi zien. Martin, esate baterako, abizenaren oinetxea eraman zuen Madalena Arandiarekin ezkondu zen; eta hurrengo gizaldian, izen bereko ondorengo titularra Frantziska Leginaetxerekin esposatu zen, Ana eta Joana

27. Ondorengo naturalek —Otxoa Gomez Dorrekoa Butroek, esaterako— edota sasikumeek ere —Alonso Antonio Butroekoak, adibidez— Santiagoko abitua jasotzea Butroe-Muxika familiak goi-mailako erakundeetan zuen eragin handiaren adierazpidea izan daiteke.

28. Hona hemen sendi hauei buruzko datu genealogiko batzuk: J.C. Guerra (1922:53-68) eta J. Ybarra Bergé (1967:IV-I:22-23).

29. Goi-mailako familiek kargu publiko batzuk betetzeko grinari buruz, ik. J. Moyén (1993:101).

30. Jakina, esandakoa ñabartu beharra dago, alde batetik Mariaren ezkontza-agirian bikote berria merkataritza-jardueretatik alboratuko zuen lokarria finkatu zelako eta, bestetik, Isabelenak 1625. urtean Santiagoko abitua jasotzeaz gain, sarritan Hiriko karguak ere bete zituen Alonso Ortiz Belaskokoa semea sortu zuelako.

31. Familia hau, bestalde, garai hartan ahaide nagusi oinaztarra jaso zuen Idiakez abizenarekin estekatuta zegoen.

arrebek Antonio Meñaka Billelarekin eta Joan Martinez Altzibarrekoarekin egin zuten bitartean.

Bilboko ingurune berean **Aldape** abizena ere nabarmendu zen. Galdakaoko burdinolen jabeen familia honek lokarria jaso zuen, baina hamarrenik ez. Dena dela, hamarrenen titulartasunik ez izan arren, eskualdeko batzuk —Arrigorriaga eta Galdakaoko Andre Mariakoak— errentan hartu zituen. Hamarren haiek erlazio oneko Abendañorenak ziren³². Sendiaren ezkontza-estrategia ingurune bereko antzeko familiengana zuzendu zen. Horren adibidea Maria Aldaperen eta Zeberioko Domingo Ugalde burdinolen jabearen arteko lotura dugu³³. Hala ere, Angela Aldape Diego Iruxtarekin ezkontzean esparrua zabaldu zuten, Batzar Nagusietako ahalmenak trukatzuz eta guzti³⁴. Zer esanik ez: azpijoko horien atzean sarritan odolezko loturak edota mendetasun ekonomikoak ziren³⁵.

Asua abizenak ere, oinaztarra izan arren, Abendañorekin harremanik izan zuen³⁶. Leinuak, Erandioko inguruetan finkatuta, Otxoa Ortiz Asuakoaren eta Ageda Martiartu Getxoren arteko ezkontzari esker Asua, Getxo eta Martiarturen lokarrietako errentak jaso zituen. Bilbo hurbil zela, Hiribildu horretako hainbat sendirekin lotu zen: Joan Ortiz Maria Diaz de Villarrealen (Pedro Villarrealen eta Mari Ximenez Bertendonakoaren alaba zenarekin, alegia) esposatu zen; hurrengo gizaldian Diego Joan Cacho de Herrera eskribau bilbotarraren eta Mari Santxez Ingelesen alaba Maria Herrerarekin³⁷ ezkondu zen; aurrekariaren izen berekoa, berriz, Joan Sarabiaren eta Maria Larrearen ondorengoa izandako Ana Sarabiarekin esposatu zen. Hala ere, familia-estrategia orain arte esandakoaren arabera eman lezakeena baino konplexuagoa izan zen. Izan ere, ingurune hurbileneko lagunekin ere lotu zen: Joan Ortizen alaba Madalena Antso Martinez Altzagakoarekin ezkondu zen³⁸. Ondorengo zuzenik gabeko jaraunspena auzietako iturburua izan zen: 1623.ean Joan Ortiz Asuakoak Antonio Arteaga eta Álvaro Mendozaren kontrako gatazka izan zuen arbasoen herentzia zela kausa³⁹. Bestalde, nahiz eta sendi horren diru-iturriek ohiko jatorria eduki (errenta gehienak lursailak eta antzeko ondasunetakoak izanik: baserriak, aziendak, hamarrenak, errota, etab.), ezkontza-estrategiaren bidez eraldatuz joan ziren⁴⁰.

32. BAHF, NA, Isk. Gonzalo Lopategi (Bilbo), 5012. PS (1633.IV.8). Joan Aldapek 1.100 errealetan jaso zituen hamarrenak.

33. 1639.ean Zeberioko Areiltzako burdinola nagusi eta Zubibarrikoaren jabea zen, nola baita Ugaoko Arandiarena ere. BFAA, AA, Auziak eta Autoak, 6 E, 65. zk.

34. 1635.eko maiatzaren 15eko Batzar Nagusietan Diego Iruxtak Galdakaoko ahalmenak aurkeztu zituen eta, alderantziz, 1624.eko martxoaren 1eko asanbladan Joan Aldape Zenarruzaren izenean azaldu zen.

35. 1632.ean Joan Aldape Ahaldu Nagusi izendatzeko proposatu zuen Domingo suhiak.

36. Lokarriaren sortzailea, Diego Perez Martiartukoa, 1548.ean —Leonor Osorio de Porres lehen emaztea hil eta gero— Leonor Abendaño Ganboarekin ezkondu zen. BFAA, BA, Villarías, 49 L, 3 E, 3. zk.

37. Joan Cacho de Herrera askotan Kontsuletzeko Idazkaria izan zen,aldi berean —ezkontzari esker— Ingeles lokarriaren errentak jasotzen zituela.

38. BFAA, BA, Villarías, 47 L, 1 E, 7. zk. Abizen bereko beste ahaide batek sarritan proposatu zituen Asua familiako kideak Gobernuko hauteskundeetan.

39. BFAA, BA, Villarías, 48 L, 2 E, 1. zk. Kantzelaritzako Presidente eta Entzuleen sententzia 1623.eko abenduaren 5ean izan zen.

40. Ana Maria Sarabia Larreak, esaterako, 4.106 dukat zentsutan eraman zituen. BFAA, BA, Villarías, 47 L, 1 E, 17. zk. (1639.I.18).

Basurto abizenaren kasuan bi lerro sailka daitezke: Abandoko Basurto-Atxa eta Urdulizeko Basurto-Etxabarria⁴¹. Lehenbizikoari dagokionez, Lope Basurto Kontsuletzeko kidea izan zela nabarmentzekoa da, familia horrek, ohiko diru-iturriak baztertu gabe⁴², askotariko jarduera ekonomikoak izan zituela erakusten duelako. Dena dela, Lope Basurtok berak Bilboko Hiribilduaren kontrako liskar asko burutu zuen, auzotasuna zela kausa. Basurto auzietara joan zen bere oinetxearen gainean Bilbok eskumenik ez izateko (auzi hartan Jaurerriak ere esku hartu zuela)⁴³. Horrez gain, ustez legez kanpo ardoa salerosteagatik ere salatu zuten⁴⁴. Edozelan ere, sendi hau Lurralde Irekiko talde muturrekoen buruzagitzan aritu omen zen askoz lehenagotik: 1572.ean lokarriaren sortzailea eta Loperen aita izandako Joan Basurto karguetatik betiko ezgaitu zuten Hegas Benegas Korrejidorearen aurka 1560.ean izandako desakatuan parte hartu izanagatik⁴⁵. Joanek berak Prudentzio Abendaño ahaide nagusi ganboatarraren kontrako gatazkaren protagonista izan zen 1566. inguruan Abandoko San Bizente elizan lehentasuna zela eta⁴⁶.

Familia honen emakumezko batzuen ezkontzak ingurune bereko etorri berriekin lotzeko asmoz burutu ziren: Maria Ibañez Basurtokoaren eta Antonio Barraikuaren artekoa, edota Maria Basurtoren biak (Aparicio Uribe Idazkariarekin lehenik eta Gregorio Coscojalesekin geroago⁴⁷) horren adierazpideak ditugu. Azkenik, sendiaren jaraunspena Barraikuak jaso zuen, Mariak oinordeko gizonezkorik ez zuela.

5.2. Plentziako ingurunea

Urdulizeko **Basurto-Etxabarria** sendia Lurralde Irekiko muturreko talde nagusietako bat zen, aurrez aztertutako Abandoko familia bezala. Izan ere, Bilboko inguruneetatik kanpo egon arren, Jaurerriak Lope Basurto-Etxabarria Ahaldun Nagusi oinaztarra Madrilen ordezkatzeko izendatzeak Hiribilduaren mesfidantza eragin zuen⁴⁸. Lope hori Martin Muxikaren⁴⁹ alaba Maria plentziarrarekin eta

41. Ik. J. Ybarra Bergé (1967: IV-II:146).

42. Hasiara batean lokarriak oinetxe ondoko baserria eta lursailak barneratzen zituen. Lope Basurtok, bigarren aldiz ezkontzean, 10.000 dukat inguru eraman omen zuen.

43. Bizkaiko Epaile Nagusiak kontrakoa ebatzi arren, geroago Presidente eta Entzuleek Basurtoren oinetxea Bilboko jurisdikziotik kanpoko zela erabaki zuten. VEKA, BES, 3. K.: Epaile Nagusiaren sententzia 1618.eko maiatzaren 11koa zen; Presidente eta Entzuleena, aldiz, urtebete beranduagokoa. Errege Eginkizuna hemen gordetzen da: BFAA, BA, Villarías, 35 L, 5 E, 14. zk.

44. 1622.eko otsailaren 12an Naziantzoko Gregorio Deunaren Kofradiak Lope Basurto salatu zuen, bertako ardoaren salmenta ez zelako bukatu. Abandoko Fielak ziren Basurtok berak eta Martin Ruiz Dorrekoak zerikusia izan omen zuten. BFAA, AJ, Korr, 1203 PS, 64. zk. Hala ere, Basurtok Bilbok ardo-horniketan inposatutako murriztapenen aurka jotzen luzaro jarraitu zuen. BFAA, BA, Villarías, 39 L, 8 E, 18 zk.

45. M. Zabala Montoya (2005). Hala ere, helegiteak aurrera egin ei zuen, 1565.ean berriz ere Ahaldun Nagusi aukeratu zuten eta.

46. VEKA, BE, 24 PS, 3. zk. Geroago eztabaidagaia patronatuaren titulartasunera desbideratu zen, 1629.ean, azkenik, Basurto Atxaren lokarrira batu zela erosketaren bitartez.

47. Ezkontza hauek familiaren ondasunak aberasteko asmoa zuten, nonbait. Aparicio Urbek 6.909,9 dukat dirutan eraman zituen, emaztegaiak 3.500 dukat jaso zituela. Gregorio Coscojales-ek familiaren ondasun guztiak aurkeztu zituen. BFAA, BA, Villarías, 36 L, 5 E, 18. zk. (1624.II.2) eta BAHP. NA, Esk. Gonzalo Lopategi (Bilbo), 5014. PS (1635.VII.7) hurrenez hurren.

48. Berehala Bilbok Gortean zuen ordezkariari aginduak eman zizkion balizko arriskuari aurre egiteko. MAHN, DK, 43617. PS.

49. Plentziako Alkatea izan zen, gutxienez, 1607. urtean. BAHP, NA, Esk. Lukas Libarona (Plentzia), 5441. PS.

udalerrri bereko Maria San Joan Larrazabalekin ezkondu zen. Bestalde, Gatz Estankoaren Matxinadaren garaian ordenaren alde jarduteko baino ez zela ageri gogorarazi nahi dut. Izan ere, iturburuaren eta ondorioaren arteko loturarik egon ote zen ez jakin arren, XVII. mendeko bigarren erdialdean familia honek Erregea-rengandik jasotako dohaintzak deigarriak dira oso. Alde batetik, 1661.ean, Morgako San Martineko patronatua, askoz lehenagotik eskatzen zuena⁵⁰, eskuratu zuen. Bestetik, zenbait abitu militar ere jaso zuen: Joan Antoniok Santiagoko abitua lortu zuen 1658.ean, izen bereko semeak beste horrenbeste izan zuen 1670.ean, aurrekoen anaia eta osaba izandako Frantziskok Calatravakoa jaso zuen 1671.ean eta lehenbizikoaren semea zen Martinek Alcántarakoa 1682.ean⁵¹.

Edozelan ere, zalantzarik gabe, **Butroe-Muxika** ingurune honetako abizen nagusia izan zen hainbat lerroren bidez. Beraien elkarren arteko lotura guztiak xehetasunez azaltzera ez naiz ausartzen⁵² baina, aztertutako datuen arabera, odolezko estekarik zabalenak eta menderakuntzarik errotuena abizen honi zegozkiola uste dut. Aperribai, Barco, Basurto, Leginaetxe, Lumo, Meñaka edota Belendiz dira, besteak beste, Butroe-Muxikari lotutako entzute handiko abizenak. Odolezko harremanak, erlazio ekonomikoak⁵³ eta aliantza politikoak elkarren artean nahasten ziren, deskribatutako beste adibideetan bezala, lotura batzuek eta besteen arteko mugak zehaztea zaila izanik⁵⁴. Eskualde honetatik abizen bereko lagunak estrategikoki sakabanatuta zeuden. Merindadeko muga zen Arrietan Luis edota Frantzisko Butroekoa lekutu ziren; kontrako muturrean —Urdulizen eta Plentzian, alegia— Antonio Butroekoa Urkiaga eta Antonio Muxika zeuden⁵⁵. Gainera, Butroe-Muxikaren lerro nagusia luzaro finkatu omen zen Bakion. Sendi bereko beste lagun batzuek Bermeotik hurbil Busturiako Merindaderaino luzatu zuten familia honen presentzia.

5.3. Bermeoko ingurunea

Arteaga eskualdeko abizen aipagarria da. Eta Hiribilduan bertan ez ezik, ingurune honetako kostaldean ere nabarmendu zen, Gautegiz Arteaga erdigunea zuela. Arteagako lerro nagusia Jaurerriatik kanpoko loturei esker zabaldu zenez gero, Bizkaiko erakundeetan abizen bereko beste kide batzuen bidez agertu zen, ahaide nagusien familien jokabide berbera izanik⁵⁶. Bermeon Mendoza Arteagako abizenekoak gailendu ziren. Bertan Prebostetza bete zuten Arteagako lerro nagusiari esker. Kargu honek, merkataritza-jarduerak zeharkatutako beste

50. SAO, GG, 1848 PS, 10. zk. (1643) edota MAHN, DK, 2755. L (1633).

51. Jakina, Frantziskok Italian Estatu-idazkaritza lortu izanak honekin guztiarekin nola edo halako zerikusia izan zuen. E.J. Labayru (1901:V, 630).

52. F. Pérez Minguez-ek (1932:109-110) Gomez Gonzalez Butroe-Muxikakoaren ondorengotza askotarikoaren berri eman zuen. Aldi berean, abizenen ordenaren ohiko aldaketek ohartarazi zuen.

53. Haietako batzuek ahaide nagusia zen Ciudad Realgo Dukearekin izandako mendetasun ekonomikoa aurrez egiaztatu nuen. M. Zabala Montoya (1999:306-307).

54. Aipatutako Idiakezen ondasunak kudeatzen zituen Pedro Guerrero Andiako bera Maria Butroerekin ezkondata zegoen.

55. Jaurerriko Ahaldu Nagusiak baino ez ditut aipatu nahi izan. Beste kargudunik ere zehaztuz gero, Uribeko Merindadeko menderakuntza askoz nabariagoa izango litzateke.

56. Noizbait familia hau bandoaren buruzagitzat hartu zuten. VEKA, BE, 786 PS, 8. zk.

Hiribilduetan bezala, etengabeko liskarrak sorrarazi zituen⁵⁷. Horrez gain, beste hainbat diru-iturri izan zuten: etxebizitzak, lursailak edota burdinolak⁵⁸, esaterako. Familia honek antzeko sendiek jarraitutako pareko ondorengotza-estrategia izan zuen, eskualdeko maila bereko ezkontideekin lotuz: Joan Ortiz Kapitaina Katalina Butroe-Muxikarekin⁵⁹ esposatu zen; geroago izen bereko semea Maria Arostegirekin ezkondu zen, eta Diego Mendozak beste horrenbeste egin zuen Ana Olaetarekin.

5.4. Gernikako ingurunea

Behar bezala ezagutzen ez badut ere, **Mezeta** sendiaren lokarria Grazian Mezetak sortu zuen 1582.ean Lumo, Mendata, Albiz eta Ajangizen kokatutako Mezeta, Albiz, Zallo eta Berrenondoko oinetxeetan oinarrituta⁶⁰. Familiaren ohiko ondasunak Busturiako Merindadeko eskualde zabaletatik sakabanatuta zeuden, erdigunea Gernika zela: Arratzu eta Lumoko patronatuak, Mendatako Ororoagako burdinola, etab. Dena dela, sendiaren eragina Bermeoraino heldu zen 1647.ean Joan Mezetaren⁶¹ eta Maria Ruiz Busturiakoaren —Joan Perez Busturiakoaren eta Joana Gartzia Ibarguenekoaren alaba zena— arteko ezkontzari esker. Lotura horrek familiaren gaitasun ekonomikoa handitu zuen, emaztegaiak Bermeoko Ertzilla dorretxea, Busturiako Ugarona edota Lumoko Alegriako etxeak barneratzen zituen Ibarguenen lokarria jaso zuelako. Joan Mezeta ere ezkondu zen Santorum Gomez Meñakakoaren eta Maria Butroe-Muxikaren alaba zen Teresarekin⁶². Hala ere, familiaren ondasunen titulartasuna zela medio, eztabaida gogorak piztu ziren eta, azkenik, zatiketa egon zen Zallo eta Berrenondoko oinetxeak besterengana-tuz⁶³.

Aurrekoari buruz baino askoz informazio hoberik ez dut **Gareka** sendiaz. Kortezubin errotu zela, XVI. mendean Butroe-Muxikarekin lotu zen Martin Ruiz Garekakoaren eta Maria Alonsa Butroe-Muxikaren —Antonio Gomezen arreba— arteko ezkontzaren bidez. Geroago ingurune bereko beste familia garrantzitsuekin lokarritzatu zen —Arratzuko Zubiaurrekin, esaterako, Ana Gareka, oinetxeko titularra, Pedro Ortiz Zubiaurrekoarekin esposatzean—. Agian sendi honek aurreko familia batzuen bezainbesteko maila ez zuen (patronaturik ez jasotzea horren adierazpidea izan liteke, nonbait). Izan ere, Jaurerriko erakundeetako eginkizun bakarra Ahaldun Nagusiarena izan zen⁶⁴.

57. Behin Mendoza Arteagakoari labankada sartu zioten kargua betetzen saiatzen ari zela. Baina berak ere 1577.ean Mateo López Kantzalaritzako ordezkariari emandako jipoian esku hartu omen zuen. VEKA, BE, 1318 PS, 8. zk. eta atal bereko 628 PS, 1. zk. Horrez gain, familia honetako kideren batek Hiribilduko karguak betetzean gorabeherak izan zituen. VEKA, BE, 1355 PS, 18. zk.

58. 1629.ean Mendoza Arteagakoak eta Joan Perez Busturiakoak ustiatzen zuten Beotegiko burdinola. BFAA, AA, Auziak eta Autoak, 5 E, 57. zk.

59. Joan Martinez Muxikakoaren eta Katalina Ibañez Arteagakoaren alaba. Emaztegaiak 2.000 dukatetik gorako ezkonsaria eraman zuen. BFAA, AJ, Busturiako KT, 201 PS, 18. zk.

60. Erakundeetako jarduna arrakasta sozio-ekonomikoaren parekoa omen dugu: Mezeta Ahaldun Nagusia izan zen 1574, 1584 eta 1602.ean.

61. Joan Mezetak Bermeoko Alkatetza bete zuen, gutxienez, 1638.ean. VEKA, BE, 1032 PS, 2. zk.

62. BFAA, NA, GP, 260. K (1636.VII.24). Aipatutako Maria Butroe-Muxika Antonio Gomezen ondorengoa zen.

63. 1626.eko ekainaren 16an Kantzalaritzako sententziaren arabera. A. Basanta de la Riva (1927: 65-67).

64. Hemen ere arlo publiko eta pribatua nahastu ziren: Martin Ruiz Garekakoaren hiru urteko agintaldian Joana Garekarekin ezkonduko Joan Isuzkitza koinatuak ordezkatu zuen.

5.5. Lekeitioko ingurunea

Zubietako oinetxean kokatutako **Adan lartzakoa** familia eskualde honetako abizen nagusia izan zen. Bertan lehertutako izaera desberdineko liskarrek sendi honen kontrako aurkakotasunak eragin zituzten, nonbait. Izan ere, Nieto Lizentziatuaren kontrako auzi korapilatsua Santiago Uribe Kapitainaren⁶⁵ aurkako ezadostasunak sorraraz zezakeen. Antzeko zerbait ondoriozta dezakegu dagokigun familiaren erabateko konfiantzazko gizona zen Joan Jakobo Cavela genevarraren kanporaketaz 1624.eko apirilaren 17ko Batzar Nagusietatik. Izan ere, Batzar Nagusi haietan Lekeitioko Hiribilduak betetzen ez zuen arrantzari buruzko arauen bat eztabaidatuko zen. Bestalde, Adan lartzakoak Zubietako oinetxea Lekeitioko jurisdikziotik salbuetsiz Jaurerriko erakundeetako blokeen artean elkarren aurkako liskarra piztu zuen, Lurralde Irekiak Hiribilduetako Erregimentua baliogabetu nahi izan zuelako⁶⁶.

Adan lartzakoaren agerpena Jaurerriko karguetan berantiarra izan zen: XVII. mendeko bigarren erdialdea baino lehen Gortean Jaurerriarentzako ordezkari aritu ziren soilik. Horrek, era berean, aipatutako abizenak zeukan menpekoen sare zabalaren berri ematen digu. Eta ez da harrizkoa izan behar: Antonio Navarro Larreategikoak betetako eginkizun burokratikoak zela medio, jaioteritik —eta bertako interesetatik— urrun egon behar izan zen. Baina Navarro Larreategikoaren bazterketa ez dago ulertzerik kanpotarra zela —Logroñokoa, hain zuzen ere— kontuan hartu gabe. Hala ere, 1616. urteko hauteskundeetan Ahdun Nagusi oinaztarra izateko proposatu zuten⁶⁷. Edozein modutan ere, horrek bereak eta bi egin zituen Antonio Adan lartzakoa Larreategi ondorengoa goresteko: 1620.ean —sei urte besterik ez zuela— Santiagoko abitua jaso zuen; geroago Martin Axperen eta Antonia Muniberen alaba zen Mariarekin ezkondu zen. Horri guztiari esker, Antoniok erakundeetan parte hartu ahal izan zuen eta 1638.etik aurrera Ahdun Nagusi izateko zozketatu zuten.

5.6. Markinako ingurunea

Eskualde honetako familia nagusiak —Barroeta, Ugarte eta Munibe⁶⁸, alegia— elkarren artean zeuden lotuta. Dena dela, elkarren kontrako etengabeko enfrentamenduak izan zituzten, diru-iturriak zirela kausa.

Barroetari dagokionez, XVII. mendeko lehen erdialdean Jaurerriko Gobernueetatik kanpo egoteak zerikusia izan ei zuen Pedro Lopez Oronzukoak Kapitaina⁶⁹ sendiko titularra izatearekin (horrek Maria, Martin Barroetaren eta Elbira Ruiz Ibarraoaren alaba zena, esposatu zuen)⁷⁰. Hala ere, hutsunea Oronzuaren ekarpen

65. Bere ilobak berak ziurtatzen zuenez, Uribek Nietoren aurka jarduteko egunero sei erreal ordaintzen zuen. SAO, EK, 340 PS, 1. zk. Hala ere, 1638.erako bi familien arteko bakea lortu zela ematen du, aurreko urteetan Domingo Nieto lartzakoak Antonio Adan lartzakoaren alde Madrilen egindako bitartekaritza lanei esker edo. BFAA, NA, GP, 247. K (1638.III.21).

66. 1620.eko otsailaren 14ko Hiribilduen aldeko Errege Eginkizuna hemen dago: VEKA, EE, 1156 PS, 18. zk. Hala ere, auziak luzaro iraun zuen eta 1635.ean Adan lartzakoak gastuak ordaintzea exijitu zuen. BFAA, NA, GP, 247. K (1635.VII.16).

67. Sei proposamenetatik hiru jaso zuen, baina azkenik zoritxarrekoa izan zen.

68. Bakoitza lokarri banaren titularra zen: Barroeta (1563), Ugarte (1603) eta Munibe (1611).

69. Ezkontza-agirian Barroeta abizena lehenago ipintzea eta oinetxean bititzea adostu zuten.

70. Izan ere, aurreko eta ondoko gizaldiek parte hartu zuten.

ekonomikoarekin oreka zitekeen, aldi berean abizenaren ondasunak finkatu ziren eta⁷¹.

Barroeta Munibekin lotu zen Martin Barroeta Oronzuaren eta Jordanaren —Martin Muniberen eta Zezilia Axperen alaba— arteko ezkontzaren ondorioz. Horrela 1571.eko apirilaren 25ean Maria Perez Munibekoa (Martin Muniberen izeko zena) eta Pedro Lopez Oronzukoa (bestearen aita) ezkontzean sinatutako aliantza suspertu zen. Jokabide endogamikoak, bestalde, ez ziren guztiz ezohikoak izan: Ana eta Magdalena (Mariaren ahizpak, alegia) Pedro Lopez Solartekoa Lobia-norekin eta Jose Antonio Lobiano Ubillarekin, hurrenez hurren, ezkondu ziren.

1616. urtetik aurrera Barroetak eta Ugartek, alde batetik —1627.etik Munibek ere esku hartu zuela— eta Markinako Hiribilduak, bestetik, Xemeingo Andre Mariako hamarrenak zirela medio, aurrez aurre izandako auzia korapilatsua izan zen oso⁷².

Munibe sendia behin betiko finkatu zen XVI. mendean izandako Indietako merkataritza-salerosketen etekinaz. Handik aurrera goi-mailako familiekin lotu zen. Lehenik, ingurune bereko abizenekin batu zen: 1595.eko ekainaren 5ean Joan Munibe Martin Otxoa Sasiolakoaren eta Joana Eginoren alaba Jordana Manuel Sasiolarekin ezkondu zen. Ezkontza horren bidez Berriatuko Arantzubiako oinetxea jaso omen zuen⁷³. Ondoren, 1620.eko abenduaren 23an, esparrua zabaldu zuten Martin Muniberen eta Zezilia Axperen arteko ezkontzaz⁷⁴. Aurrez, 1611. urtean, lokarria sortu ahal izan zen⁷⁵ burututako estrategiaren bitartez. Hurrengo gizaldian, Martin eta Pedro⁷⁶ anaiak Santiagoko abitu bana eskuratu zuten 1634.ean⁷⁷ eta 1647.ean, hurrenez hurren. Bestalde, nekez uka daiteke Gatz Estankoaren Matxinadaren garaian mugimendua bertan behera uzteko Martin Munibek izandako partaidetzak eta 1634. urtetik aurrera sendi honek Jaurerriko kargu nagusien

71. BFAA, AJ, Korr, 1962 PS, 11. zk.

72. Horrez gain lehentasunak ere izan ziren eztabaidagai. VEKA, BE, 968 PS, 1. zk. eta atal bereko 969 PS, 1. zk. Oronzuak eta Ugartek Lurralde Irekiak beraien alde esku har zezan nahi izan zuten. Kantzelaritzan luzaro Markinako Hiribilduaren ordezkaria Martin Otxoa Axorabidekoa buruzagi matxinoa izatea harrigarria da, jarrera horrek geroagokoarekin zerikusirik ez zuen eta. Ik. MUAH, 8. E, bertan Axorabidek Hiribildura bidalitako txostenak gordetzen dira eta. Ugarteren eta Markinaren arteko elkarren aurkakotasuna erabatekoa izan omen zen, aldi berean Prebostearen izendapenagatik eta jurisdikzioagatik ere auzietara jo zutelako (VEKA, BE, 1393 PS, 1. zk. eta atal bereko 954 PS, 12. zk. hurrenez hurren).

73. Hala ere herentzia-azuzietan argitu behar izan zen. VEKA, BE, 626 PS, 3. zk.

74. Bi abizenen arteko aliantza sendotu egin zen aldi berean Martin Axpe eta Antonia Munibe ezkondu zirelako.

75. Munibeko oinetxea eta bere lursailak ez ezik, zenbait errenta ere barneratzen zituen: Sevillako Almojarifazgo Nagusiaren gaineko 23.880,4 dukateko bi *juro* izeneko diru-ezarpen, Indietako Almojarifazgoaren gaineko 8.949,7 dukateko beste bat eta Burgoseko Harategien gaineko 292,9 dukateko zentsua; lehenbiziko biek urtero % 5eko interesa produzitzen zuten, hirugarrenak % 3,3 ekoizten zuten bitartean. PKA, 82. Ale, 2045. zk. (1611.eko martxoaren 6ko Joan Muniberen testamentua).

76. Pedrok burokraziari ekin zion. 1626.ean Valladolideko Santa Gurutzen ikasketak burutu zituen, geroago —1636.ean— Kantzelaritzako Fiskala izan zen, ondoren —1642.ean— Gorteko Alkate izendatu zuten, hurrengo urtean Ordena Militarretako Kontseilura sartu zen eta azkenik, 1653.ean, Gaztelako Kontseiluan. E.J. Labayru (1901:V, 160).

77. Martinek ez ezik, Joan Axpe Munibe lobak ere jaso zuen. 1634.eko azaroaren 19an Markinan bien omenezko ospakizunak izan ziren. J.J. Mugartegui (1933:349-350).

betetako protagonismoaren gorakadak⁷⁸ zerikusia izan zutela, nik uste. Ildo beretik jarraituz, nabarmentzekoa da oso 1649.eko abuztuaren 11n Joan Frantzisko Munibe, Martinen semea eta ondorengoa, Gonzalo Ugarte buruzagi matxino damutuaren alaba zen Isabelekin ezkontzea.

Aipatutako **Ugarte** familia ingurune bereko hirugarren abizen handia dugu. XVI. mendean betekizun burokratiko edota merkataritza-jardueren bidez handitutako ondasun batzuk batu zituen Gonzalo Ugartek, Zaldibar, Mallea eta Ugarteren lokarrietako titularra izan zenak, nahiz eta aurrez zentsutan inbertitu⁷⁹. Berrito ere harreman pertsonalen eta politikoen arteko nahasketa dago, kasu honetan Gipuzkoako edota Durangaldeko sendiekin. 1615. urtean, esate baterako, Gonzalo Ugarte Ahaldun Nagusia zela, Jaurerria lurretako Mikel Deuna, Zaldibarreko Andres Deuna eta Mallabiko Andre Mariaren patronatuetako titularra eta aurrekoaren aitaginarreba zen Fernando Hurtado Zaldibarrekoaren alde azaldu zen, 1611.ean patronatu haiek erregearen mesedearen bidez Joan Isasi eibartarrak lortu zituelako⁸⁰. Era berean, 1633.ean Ugarte kanpoan zen bitartean behin behineko Ahaldun Nagusia izandako Antonio Otxoa Undakoa aipatu beharra dago, Ugarteren erabateko konfiantzazkoa izateaz gain, bien artean lotura ekonomiko sendoak egon zirelako⁸¹. 1611.ean eta 1620.ean Jaurerriko Errejidore izandako Fernando Lamikizen kasuan antzeko zerbeit ondoriozta dezakegu, Mendatako hamarrenak errentan hartu zituelako. Gainera, aliantzak interes politiko berdineko lagunen artean gauzatu ziren: Maria Otxoa Ugartekoa, Gonzaloren arreba zena, Joan Iñiguez Iburguenekoarekin esposatu zen, Bermeoko Ertzilla dorretxeko titularra eta Lurralde Irekiko muturreko taldeetako buruzagiarekin⁸², alegia. Hurrengo gizaldian, berriz, ondorengotza-estrategia eraldatu zen: Gipuzkoako loturak iraunarazteko ahalegin porrokatua burutu eta gero —Isabel bere abizeneko oinetxeko titularra zen Emiliano de San Millanekin ezkondu zen, baina bikoteak seme-alabarik ez zuen izan—, alde batetik Muniberengana (aurrez aipatu den bezala) eta, bestetik, Basurtorengana jo zuten: Joan Ugarte Joan Antonio Basurtoaren eta Maria Barcoren alaba zen Frantziskarekin ezkondu zen.

6. Bandoak eta bandoen luzapena erakundeetan

Behe Erdi Aroko Bizkaiko bandoen, tokian tokiko kokapenaren eta jarduera ekonomikoen arteko erlazioa sarritan azaldu da⁸³. Oro har, lehenbiziko bi eragileak aztertutako garaian eta salbuespenak salbuespen mantendu zirela uste dut. Sendi nagusien kokapenak eta Jaurerriko udalerrien banaketak hala adierazten dute⁸⁴.

78. Aldez aurretik Martin Munibek (eta bere familiak) behin –1624.ean hasitako biurtekoan– baino ez zuen kargua bete.

79. Gonzalo Ibañez Ugartekoak 7.273,3 dukat utzi zituen hiltzean zentsu eta *juro* deitutako diru-erzarpentetan. PKA, 86 Ale, 2115. zk. (1603.II.15).

80. A. Larrea Beovide (1993:126).

81. 1629. urtean Ugartek 1.000 dukateko etxebizitzak, 200 dukateko azienda, 1.250 dukateko zentsuak eta 1.200 dukateko zentsuetako interesak besterenganatu zizkion. BAHP, NA, Esk Joan Bautista Ganboa (Durango), 79. PS (1629.IX.5).

82. BAHP, NA, Esk Joan Bautista Ganboa (Durango), 83. PS (1638.IV.8).

83. I. Arocena (1969:293) eta A. Otazu Llana (1973:22), besteak beste. Ik. J.A. García de Cortázar [*et al.*] (1985:III, 354).

84. E.J. Labayru (1901:V, 93-94).

Egia esan, azkeneko banaketa aurrekoaren egokitzapena besterik ez zen. Hainbat kasutan ingurune berean talde nagusi bat baino gehiago lekututa zegoenez gero, tartekatzeo aukera ere eskaini zen. Izan ere, banaketa tokian tokiko egoerara egokitzen saiatu zen. Bizkaia Nuklearreko barrualdea (Arratia eta Bediako Merindadeak eta Zornotzako gehiena ere barne) ganboatarren lurraldea zen, batez ere bertan Abendañok izandako nagusitasunari esker⁸⁵. Hala ere, bi Merindade nagusietan eta Markinan banaketa nahasiagoa zen. Uribeko Merindadeari zegokionez, oinaztarrek kostaldea menderatzen zuten, Bilboko inguruneetatik Bermeoraino, baita barrualdeko hainbat eskualde ere. Bertan Butroe-Muxikaren nagusitasuna nabarmentzen zen, Asua edota Basurto-Etxabarria bando bereko beste abizen batzuen laguntzaz. Barrualdean, berriz, hego-mendebaldetik ipar-ekialdera zihoan eta Merindade osoa zeharkatzen zuen ganboatarren esparrua antzeman daiteke, Zeberio eta Ugaotik Mungia eta Gatikarainokoa, hain zuzen ere⁸⁶. Busturian bi bandoen arteko iragankortasuna nagusitu zen. Dena dela, Arteagaren menpe zegoen Gernikako itsasadarraren eskuinaldean eta Merindadeko ekialdean, hau da, Leako haranan ganboatarren lurraldeak ohar daitezke. Bi eskualde haien artean Artibaiko harana dago, Adan lartzakoari esker oinaztarren esparrua zena. Azkenik, Markinako Merindadean ere ez zegoen banaketa argirik, eta Markinako Hiribildua bera tartekatu zen (bertan Barroeta, Ugarte eta Munibe izateagatik edo).

Oro har, aurreko iragankortasunak bat datoz ordezkartza zela kausa Batzar Nagusietan liskar ohikoenak piztu zituzten udalerriekin, baita bozketetan desakordio deigarrienak erakutsitakoekin ere. Eragile horien guztien arteko erlazio zuzenik ez egotea zalantzarria da oso.

7. Ondorioak

Jaurerriko erakundeetan talde zuzentzailearen abizen nagusiek jarraitutako estrategiaren analisiaren bitartez, nola edo halako sailkapena egiten ahalegindu naiz. Talde honetan jatorri zaharreko abizenak barneratzen ziren, baina bertan antzinako ahaide nagusien leinuak nabarmendu ziren, bai erakundeetan izandako protagonismoagatik (lerro nagusiak ez ziren beste batzuen bidez soilik agertu arren) baita mendetasunezko sare zabalengatik ere. Oinarri ekonomikoei dagokienez, sendi hauen guztien arteko diferentzia handirik ezin izan dut topatu. Hala ere, ondoriozta dezaket bazirela erlazio sozio-ekonomikoak eta mendetasunak

85. Nagusitasun hau nabartzekoa da. Abendaño Arratiako familiarik boteretsuena omen zen. Horrez gain, ingurune bereko beste sendi batzuen laguntza zeukan: Altzibar, Gortatza, Atutxa, etab. Aliantza haien guztien abiapuntua odolezko lotura eta erlazio ekonomikoak ziren. Baina, aldi berean, balizko nagusitasun hori kolokan jar zezaketen enfrontamendu ugari ere baziren. Beraietako bat lehen instantziako justizia izan zen. 1602.ean, esate baterako, Areatzako Hiribildua Diego Abendañoren izendapenaz Pedro Ruiz Gortatzairekoak Foru Alkatetzaren aginte-makila eraman ez zezan saiatu zen. 1606.ean Dimak ganboatarren ahaide nagusiak Joan Ozerin Meriorde izendatzeagatik protesta azaleratu zuen. VEKA, BE, 1315 PS, 4. zk. Gainera, Abendaño izan ei zen laikoan patronatuen aurka Erregeak burututako erasoaren ondorioz kalte larrienak jasan zituen abizena. Eta hala izan zen, besteak beste, ganboatza leinuko Urizar eta Axpe familiek Zeanuriko Andre Mari, lehenago, eta, ondoren, Dimako San Pedroko elizetako ustezko usurpazioak zirela medio ezarritako salaketengatik. A. Larrea Beovide (1993:119-123).

86. Harrigarria dirudi, Butroe-Muxikaren oinetxearen udalerrian lekutzen zen eta.

egituraturako fakzioak. Gainera, aurkakotasunik ohikoenak eta larrienak aberas-
tasunen banaketagatik eta aginpidea kontrolatzegatik suertatu ziren. Agian guztien
atzean talde zuzentzaileak garaiko krisialdiari aurre egiteko beharra eta goi-
mailako lagun berriak barneratzeko erresistentzia egon zitezkeen⁸⁷. Erakundeeta-
ko blokeen arteko elkarren kontrako enfrontamenduak fakzio hauen arteko aurka-
kotasuna gogortasun osoz islatu zuen. Dena dela, aipatutako gatazka Jaurerriko
antolamenduari buruzko irizpide desberdinengatik baino ez zela izan ezin dut se-
gurutzat eman, odolezko loturak eta erlazio ekonomikoak oso konplexuak zirelako.
Izan ere, familia gehienek bazuten nola edo halako partaidetzarik Hiribilduetan.
Era berean, bandoetako banaketak —gutxi gorabehera sendi nagusien kokape-
narekin bat zetorrenak— talde zuzentzailearen bestelako barne-tirabirak desbidera
zitezkeen erakundeetara.

Iturriak eta bibliografia

- Areitio, D. (1943): *El Gobierno Universal del Señorío de Vizcaya*, Bizkaiko Aldundia, Bilbo.
- Arocena, I. (1969): “Los banderizos vascos”, in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, **XXV**, 275-312.
- Basanta de la Riva, A. (1927): *Nobleza vizcaína. Estudio genealógico de pleitos sobre vizcaína y mayorazgos del Señorío*, Imprenta Casa Social Católica, Valladolid.
- Cifuentes Pazos, J.M. eta Larrea Beovide, A. (1999): “La población vizcaína en el Siglo XVII: tendencias dominantes”, in *Vasconia*, **29**, 5-19.
- Domínguez Ortiz, A. (1973): *Las clases privilegiadas en la España del Antiguo Régimen*, Istmo, Madril.
- Fayard, J. (1982): *Los miembros del Consejo de Castilla (1621-1746)*, Siglo XXI, Madril.
- García de Cortázar, J.A. (et al.) (1985): *Vizcaya en la Edad Media. Evolución demográfica, económica, social y política de la comunidad vizcaína medieval*, Haranburu, Donostia.
- Guerra, J.C. (1910/22): “Ilustraciones genealógicas de los linajes bascongados contenidos en las Grandezas de España compuestas por Esteban de Garibay...”, in *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, **IV**, 45-58; **XIII**, 53-68.
- Labayru, E.J. (1897/1901): *Historia General del Señorío de Bizcaya*, LGEV, Bilbo [1971.eko berrargitalpena].
- Lafourcade, M. (1989): *Mariages en Labourd sous l'Ancien Regime. Les contrats de mariage du Pays de Labourd sous le Règne de Louis XVI (Etude Juridique et Sociologique)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Larrea Beovide, A. (1993): *El patronato de laicos en la Vizcaya del Antiguo Régimen*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo [argitaragabeko doktore-tesia].
- Larramendi, M. (1754): *Corografía de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa* Amigos del Libro Vasco, Bilbo [1987.eko berrargitalpena].
- López Atxurra, R. (1991): “La foralidad en la historiografía vasca”, in *Ernaroa*, **6**, 117-170.
- Maravall, J.A. (1979): *Poder, honor y élites en el siglo XVII* Siglo XXI, Madril.
- Monasterio, I. (1994): *Los pactos sucesorios en el Derecho Vizcaíno*, Bizkaiko Foru Aldundia-Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Monreal Cía, G. (1974): *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el Siglo XVIII)*, Bizkaiko Aldundia, Bilbo.

87. Bi hipotesiak ez dira bateraezinak izan behar, baina XVI. mendearen lehen erdialdeko agirien eskasiagatik, tamalez, bigarrena egiaztatzerik ez da posible izan.

- Moyen, G. (1993): "Identification et situation de fortune de l'oligarchie urbaine de Valence dans la deuxième moitié du XVII^e siècle", in *Les élites locales et l'état dans l'Espagne Moderne du XVI^e au XIX^e siècle* CNRS, Paris, 97-128.
- Mugartegui, J.J. (1933): "Cruzamiento de Caballeros de la Orden de Santiago en la Villa de Marquina", in *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, **XXIV**, 349-350.
- Otazu Llana, A. (1973): *El 'igualitarismo' vasco: mito y realidad*, Txertoa, Donostia.
- Pérez, J. (1989): "Réflexions sur l'hidalguía", in *Hidalgos & Hidalguía dans l'Espagne des XVI^e-XVIII^e siècles. Théories, pratiques et représentations* CNRS, Paris, 11-22.
- Pérez Minguez, F. (1932): "Don Juan de Idiaquez. Embajador y Consejero de Felipe II. 1514-1614", in *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, **XXIII**, 70-129.
- Ybarra Bergé, J. (1967): *Escudos de Vizcaya*, Villar, Bilbo.
- Zabala Montoya, M. (1999): "Besterenaketa Gatzaren Estankoaren Matxinadaren testuinguruan: lotura eta oposizioen adierazgarri", in *Vasconia. V. Tokiko Historiako Jardunaldiak. Familia Euskal Herrian*, **28**, 295-315.
- , (2004): "Bilboko talde zuzentzailea XVI eta XVII. mende bitartean: aginpidea eta ondorengotza-estrategia aztergai 1630.eko konkordiaren arabera", in *Bidebarrieta*, **XV**, 363-391.
- , (2005): "Goi Aro Berriko Bizkaiko Batzar Nagusiak 1630.eko Konkordia baino lehenago: desoreka eta gatazka", in *Sancho El Sabio* [prentsan].

Laburdurak

- AA: Atal Administratiboa.
- AJ: Atal Judiziala.
- AK: Aholkulariak.
- AN: Ahalduen Nagusiak.
- BA: Bestelako Atalak.
- BAHP: Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala.
- BE: Bizkaiko Entzutegia.
- BES: Bizkaiko Entzutegiko Sententziak.
- BFAA: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa.
- BN: Batzar Nagusiak.
- DK: Deuseztaturiko Kontseiluak.
- DZ: Diruzainak.
- E: Erregistroa.
- EE: Errege Eginkizunak.
- EK: Errege Kontseilua.
- ER: Errejidoreak.
- Esk: Eskribaua.
- GG: Gaztelako Ganbara.
- GIA: Gerra eta Itsas Armada.
- GP: Gernikako Protokoloak.
- ID: Idazkariak.
- K: Kutxa.
- Korr: Korrejimendua.
- KT: Korrejimenduko Tenentzia.
- L: Liburua.
- MAHN: Madrilgo Artxibo Historiko Nazionala.
- MUAH: Markinako Udal Artxibo Historikoa.

NA: Notario Atala.

PKA: Peñafloredako Kondeen Artxiboa.

PS: Paper-sorta.

SAO: Simancaseko Artxibo Orokorra.

SN: Sindikoak.

UP: Ugaoko Protokoloak.

VEKA: Valladolideko Errege Kantzularitzako Artxiboa.

ZP: Zornotzako Protokoloak.

